

IRAKUZALETASUNA BULTZATZEKO **PROGRAMA - 2013**



AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 5.- KRONOGRAMA**
- 6.- GASTUEN ZERRENTA**

ERANSKINAK:

- I. ERANSKINA: Gaztezulo aldizkariaren prop (2013)**
- II. ERANSKINA: Euskarazokari buruzko informazioa**



1.-SARRERA

Badira urte batzuk egitasmo puntualak garatu izan direna Euskara Zerbitzutik irakurzaletasuna bultzatzeko, bakoitza esparru batean eta modu soltean.

Beraz, uste dugu sasoia dela aipatu ekintzei jarraipena eman eta egitasmo potoloago bat eratzeko. Irakurzaletasuna bultzatu asmoz, honako azpiegitasmoak biltzen ditugu honetan:

- Gaztezulo aldizkariaren harpidetza, DBHko bigarren zikloko ikasleei sei hilabetetan doan eskaintzeko.
- Udal liburutegiko programa berezia
- Euskarazoka kanpaina.

2.-HELBURUAK

Egitasmo honen bitartez, 2009-2012 eperako Gernika-Lumoko Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoan (2013ko urtarrilaren 30eko Osoko Bilkuran urte baterako luzatuko duena) eta 2013ko Kudeaketa Planean aintzat hartutako hurrengo helburu, esparru, neurri eta ekintzak landu gura dira:

- **Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.**

3. Irakaskuntza

3.2. Eskolaz kanpoko prestakuntza jardueretan euskararen erabilera areagotu.

3.2.2. ESKAINTZA SUSTATU

- (*) 3.2.2.12. Irakurzaletasuna bultzatu DBHko ikasleen artean (Gaztezulo aldizkariaren 6 hilabeteko harpidetza dohainik)



- Helburu estrategikoa: 3.- Euskararen elikadura.

8. Kulturgintza

8.2. Euskarazko kultur ekoizpenak eta sormena bultzatu.

8.2.2. KOMUNIKAZIOA

8.2.2.1. Herriarren artean euskarazko kultur produkzioa ezagutarazi: gida, katalogo, web orri, euskaltegi eta udaleko gune ezberdinetan...

8.3. Euskaraz irakurtzeko zaletasuna handitu.

8.3.2. EKITALDIAK ANTOLATU

8.3.2.1. Zentro publikoetan (osasun zerbitzua, udalaren bulegoak...) irakurgai utzi euskarazko aldizkari eta liburuak.

8.3.2.7. Liburuaren eguna ospatu.

(*) 8.3.2.12. Hileroko azken barikuetako ekintza egitaraua burutu irakurzaletasuna bultzatu asmoz

3.- AZPIEGITASMOAK

3.1.- Gaztezulo aldizkariaren harpidetza

Gaztezulotik duela lau urte jasotako proposamenari eutsi eta urtero burutzen dugu. Aurrekontuaren partiden arabera, ikasle gehiago edo gutxiagorako ematen du harpidetzak. Aurtengoan, 2013an harpidetza doanik eskainiko zaie sei hilabetez DBHko bigarren zikloko ikasleei.

I. eranskinean dago 2013rako proposamena.

3.2.- Udal liburutegiko programa berezia

- IPUIN-KONTALARIAK hileroko azken barikuan, 18:00etan. Urtarrila, Otsaila, Martxoa, Apirila, Maiatza, Urria, Azaroa, Abendua. (2.000 euro).



- Udako liburutegia. Udan, Udal Liburutegia kalera ateratzen dugu eta liburu, prentsa eta aldizkariak maileguan uzten ditugu herriko plazan. Eguraldi ona eta opor sasoia dela-eta, herritarrek egon ohi diren tokietara hurbiltzea izaten da helburua. Horrela, liburutegietako erabiltzaileen irakurtzeko ohitura bultzatu, irakurtzeko zaletasunik ez dutenen artean gogo hori piztu eta udal liburutegira ezagutzeko bidea erraztea da xedea. Eta hori guztia euskaraz, Euskara Zerbitzuak urtean zehar abian izaten duen Euskarazoka programako argitalpenak ere udako erakusleho horretan txertatzen duelarik.

3.3.- Euskarazoka kanpaina

Euskara Zerbitzuak, bere kabuz edota beste hainbat eragilarekin batera euskaraz ekoiztutako argitalpenak zein osterantzean eskuratutakoak salgai jartzen dira prezio sinbolikoan maiatzetik abendura arte ospatzen diren azoka berezietan, hileroko lehenengo zapatuetan Merkatu Plazan.

Horretarako, Urdaibai Rugby Elkartearekin elkarlanean ekiten diogu eta euren begiraleak dira saltokia prestatzen dutenak. Horrekin lotuta, aldi bakoitzean abian dagoen kanpainaren berri emateko ere aprobetxatzen da (udan kontsumitzaileenganakoa, urrian euskara ikasteko diru laguntzena, abenduan euskararen egunekoa,...).

3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: koordinazio lana, azpiegitasmo bakoitzerako hizkuntza irizpideak proposatzea, jarraipena egitea.
- Gaztezulo aldizkaria: behin harpidetza eginez gero, irakaskuntza zentroekin harremanetan jartzea, Euskara Zerbitzuak zubi lana egin ondoren. Azpiegitasmo honen jarraipena egitea.
- Urdaibai Rugby Eskola: “Euskarazoka” egitasmoaren garapena, Euskara Zerbitzuak emandako argitalpenak eta materiala oinarri.



- Udal liburutegia, bertako dinamizazioa burutzeko (hilerokoak eta udakoa).

Giza eta diru baliabideak:

- Euskara Zerbitzuko HNT1. Diru baliabideak ere Euskara Sailak jarriko ditu.
- Gaztezulo aldizkariko teknikaria, zentroekin sustapen lana.
- Eskoletako arduradunak: Gaztezulo aldizkariaren sustapenerako eta gutuna banatzeko.
- Urdaibai Rugby Eskolako begiraleak (lau begirale, Euskarazokarako).

4.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

Argitu behar, egitasmo orokorraren honen xede taldea herritar guztiak izatea nahi badugu ere, azpiegitasmo bakoitzeko xede taldea bereiztu behar dugula:

- Gaztezulo aldizkaria: DBHko bigarren zikloko ikasleak (360).
- Udal liburutegiko egitasmo berezia: Gernika-Lumon dauden 0-17 urte bitarteko biztanleak 2.646 izanik, liburutegiko bazkide dira 1.206 (%46) eta hauek osazen dute azpiegitasmo honen xede taldea.
- Euskarazoka azpiegitasmoa: hilabete bakoitzeko lehenengo zapatuetako azoketara hurbiltzen den biztanleria dugu xede taldea, adin guztietakoa. Gutxi gora-behera, 700 bat pertsona izaten dira batz bestea.

Adierazleak:

Egitasmo honi lotutako adierazleak:



- Gaztezulo aldizkariaren azpiegitasmoan, doaneko kanpainaren ondoren, harpidetza edo interneteko lotura eskatzen dutenen kopurua.
- Udal liburutegiko egitasmo bereziaren azpiegitasmoan, bazkide direnetatik, ekintzetan parte hartuko dutenen kopurua.
- Euskarazoka azpiegitasmoa: salgai eta eskuragarri jarritako argitalpenetatik zenbat saldu eta banatu diren.

5.-GARAPENA - KRONOGRAMA

Jarduerak	Urt	Ots	Martx	Apir	Maia	Ekain.	Uztail	Abuz	Irail	Urria	Aza	Abend
Gaztezulo (harpidetza)												
Ipuin kontalaria												
Udako liburutegia												
EUSKARAZOKA												

6.- AURREKONTUA

Kontzeptuak	Kopuruak
Gaztezulo aldizkaria (harpidetza sei hilabeterako)	1.650
Liburutegiaren egitasmoa (ekitaldiak: ipuin kontalariak,...)	2.000
Euskarazoka kanpaina (monitoreak)	600
Gastuak guztira	4.250

Gernika-Lumon, 2013ko urtarrilean.

Esperanza Uriarte Erdaide
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Euskara Teknikaria I



I. ERANSKINA

Gaztezulo aldizkariaren proopsamena (2013)





gaztezulo
HI ETA HIRI MUNDUAK

'IRAKURRIZ GOZATU' EKIMENA

ZER DA 'IRAKURRIZ GOZATU' EKIMENA?

GAZTEZULO aldizkaria Euskal Herriko hainbat Udal eta ikastetxerekin elkarlanean garatzen ari den egitasmoa da 'Irakurriz Gozatu'. Xedea hauxe da: euskarazko produktu idatzien kontsumoa bultzatzea, eta oro har, irakurzaletasuna sustatzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Laugarren Mailako eta Batxillergoko ikasleen artean. Xede horiek lortzeko tresna gisa erabiltzen dira **GAZTEZULO**ren euskarri guztiak.

PROGRAMA ARRAKASTATSUA: 7.500 IKASLE

2011-2012 ikasturtean, 39 herri eta mankomunitatetan garatu dugu 'Irakurriz Gozatu' programa. Guztira, 7.567 ikaslerengana heldu da egitasmoa.

- **Gipuzkoan:** Donostia, Aretxabaleta, Arrasate, Anoeta, Zestoa, Irun, Hernani, Astigarraga, Azpeitia, Lasarte-Oria, Zumarraga, Urretxu, Bergara, Ordizia, Villabona, Soraluze eta Azkoitia.
- **Bizkaian:** Balmaseda, Igorre, Ortuella, Gernika-Lumo, Bermeo, Uri-

be-Kostako Mankomunitateta (Plentzia eta Sopela), Etxebarri, Berriz, Urduña, Enkarterriko Mankomunitatea (Zalla, Gueñes, Alonsotegi...), Arrigorriaga, Abanto Zierbena, Getxo Muskiz, Erandio eta Sestao.

- **Araban:** Aguraingo eskualdea (Agurain, Dulantzi eta Burgelu)
- **Nafarroan:** Bortzirietako Mankomunitatea (Bera, Lesaka, Etxalar, Igantzi eta Arantza), Gares, Berriozar eta Nafarroa Iparraldeko Mankomunitatea (Leitza, Areso, Goizueta eta Lekunberri).



EMAITZA BIKAINAK

2011-2012 ikasturtean 'Irakurriz Gozatu' egitasmoan parte hartu duten ikasleei egindako inkestek erakusten dutenez, GAZTEZULO tresna ezin egokiagoa da gazteen artean euskarazko produktu idatzien kontsumoa sustatzeko.

–Ikasleen %77k diote euskaraz gehiago irakurtzen dutela **GAZTEZULO** jasotzen hasi zirenetik.

–Ikasleen %74k diote euskal kirolari, musika talde, aktore edo artistaren bat ezagutu dutela **GAZTEZULO**ri esker.

–Ikasleen %63k **GAZTEZULOFLASH** buletin elektronikoa jasotzeko harpidetza (doan da) egin dute. Horrek adierazten du gure produktua gustuko dutela. Ikasturte bukaeran, ikasle guztien partehartzea eta inplikazioa eskertzeko, iPhone 4S bat zozkatu dugu. Irabazlea Donostiako gazte bat izan da.

III. GAZTEZULO SARIA ETA III. BIDEO LEHIAKETA, 2012/13 IKASTURTEAN ZEHAR

2012-2013 ikasturtean zehar 'Irakurriz Gozatu' ekimenari esker **GAZTEZULO** jasoko duten ikasleek bi egitasmo bereziren berri izango dute; biak ala biak jarriko baititugu martxan urria inguruan. Batetik, III. Gaztezulo Sarian 'epaile' gisa jarduteko aukera izango dute. Gure irakurleen bozkak jasota jakin nahi dugu zein euskal gaztek merezi duen **III. Gaztezulo Saria** azken urte honetan zehar (2012) egindako lanagatik, edozein delarik ere bere lan esparrua: musika, zinema, literatura, kirola... Beren bozka www.gaztezulo.com webgunearen birtartez emanez parte hartzen duten guztiak produktu elektronikoen baten zozketan sartuko dira. Aurreko bi saioetan bezala, **III. Gaztezulo Saria** jasotzen duen protagonistarekin, irabazlearekin, bideo bat grabatu eta sareratuko dugu bere alde pribatuagoa ezagutuko.





Bestalde, **III. Hi eta hire munduak Bideo Lehiaketari** buruzko albisterik ere izango dute 'Irakurriz Gozatu' ekimenean parte hartzen duten ikasleek. 2010ean abiatutako esperientziari eutsi nahi diogu aurten ere, benetan aberasgarria dela sinetsita baikaude. **GAZTEZULO** ren claima den 'Hi eta hire munduak' hori da plazaratzen dugun gaia; eta hauxe proposamena: gazteek kontu diezagutela bideo labur batean (gutxienez minutu bat, gehienez hiru minutu) zer nolakoa den euren mundua; zer gustatzen zaien, zertan pasatzen duten denbora... Taldekako nahiz banakako lanak onartuko ditugu, beti ere euskarazkoak. Talde lana, sormena eta euskarazko komunikazioa sustatzeko ekimen interesgarria da eta, aurreko bi urteetan behintzat, harre-ra bikaina izan du gazteen artean: kasik 50 bideo labur jaso genituen edizio bakoitzean.

Ikus-entzunezkoen alorreko zenbait profesionalek osatuko dute epaimahai, eta hauek izendatuko dituzte irabazlea eta aipamen berezia. Horretaz gain, gazteak beraiek arduratuko dira Publikoaren Saria nork merezi duen finkatzeaz **www.gaztezulo.com** webgunearen bitartez.



METODOLOGIA

Hauxe da programaren metodologia:

- Udalak, sei hilabeteko harpidetza (11 zenbakitik 6) ordaintzen die ontzat emandako mailako ikasleei (DBH4 edo Batxilergoa).
- **GAZTEZULO** aldizkariako sei zenbakiak ikastetxeetara helaraziko ditugu. Ikasleen datuak edukiz gero, aldizkaria etxean jasoko dute hilabetero.
- Azken zenbakia jaso ostean, ikasleei inkesta bat banatzen zaie **GAZTEZULO**ri buruzko iritzia eskatuz. Horrekin batera, aldizkariaren urte osoko harpidetza eskaintzen zaie eta **GAZTEZULOFASH** buletin elektronikoa doan jasotzeko aukera ematen diegu, ondoren ere euskaraz irakurtzen jarrai dezaten.



PREZIOAK:

Urte erdiko harpidetza:

10-39 ale, %**3ko** deskontua: 9,65 euro ikasle bakoitzeko.

40-79 ale, %**5eko** deskontua: 9,45 euro ikasle bakoitzeko.

80-120 ale, % **13ko** deskontua: 8,66 euro ikasle bakoitzeko.

121 aletik gora, %**20ko** deskontua: 7,96 euro ikasle bakoitzeko.

OHARRA: salneurrietan B.E.Za (%4) ez dago barne.

HARREMANAK URRATSEZ URRATS

GAZTEZULOK, Udalek eta ikastetxeek ondorengo urratsak egingo dituzte:

1. **GAZTEZULOK** ikastetxeetako Hizkuntza Normalkuntzarako Teknikari bakoitzari ikasle kopuruaren berri eskatuko dio.
2. **GAZTEZULOK** ikastetxeetara hilabetero aleak bidaliko ditu.
3. Ikastetxeek gurasoei eskutitz bat bidaliko diete egitasmoaren berri emanez.
4. **GAZTEZULOK** ikasleen iritzia jasoko du inkesta baten bidez, eta urte osoko harpidetza eskainiko die ikasleei.
5. **GAZTEZULOK** egitasmoaren memoria eta dagokion faktura bidaliko dizkio Udalari.



II. ERANSKINA

Euskarazokari buruzko informazioa



LIBURUEN BANAKETA: EKAINA/ABENDUA

EUSKARAZOKA 2011 - ZERRENDIA	6	7	8	9	10	11	12	GUZTIRA
	SALDU	SALDU	SALDU	SALDU	SALDU	SALDU	SALDU	
IDAZLAN KOADERNOAK - 2 €	-	-	1	-	-	-	-	-
CD-a URDAIBAICO TRIBIALA - 2 €	-	-	-	-	-	-	-	-
CD-a BULUN-BULUNKA - 2 €	-	-	-	-	-	-	-	-
KU-KU (haurrekin hitz egiten hasteko) - 1 €	-	-	1	2	1	-	-	4
Ume elebidunen gurasoentzako eskuliburua - doan	-	-	3	2	-	1	3	9
Etorkinentzeko gida - doan	4	-	6	3	-	1	2	16
"Olimpiadak" (komikia) - 2 €	-	-	-	-	-	-	-	-
"Knossos-eko ondarea" (komikia) - 2 €	-	-	-	-	-	-	-	-
"Harri pintatzaileak" (komikia) - 2 €	-	-	-	-	-	-	-	-
"Piratarekin ONGI MARRAZTU" (komikia) - 2 €	3	-	-	1	-	-	-	4
"Babiloniarak" (komikia) - 2 €	-	-	-	-	-	-	-	-
SEGAPOTOEN MEZU SEKRETUAK - 1 €	-	-	-	-	-	-	-	-
Sareko euskarazko produktuen katalogoa - doan	-	-	-	-	-	-	-	-
GEURE BERBAK (liburuxka) - 1 €	-	-	-	-	-	-	-	-
BUSTURIALDEKO ESAKERAK - 1 €	-	-	-	-	-	-	-	-
BERBETEARI GATZA ETA PIPERRA - 1 €	-	-	-	-	-	-	-	-
IDATZIAK (konbiteak, zorion-agurrak, oharrak...) - 1 €	-	-	-	-	-	-	-	-
Gernika-Lumoko toponimia mapa - doan	-	-	-	-	-	-	650	650
GERNIKA-LUMO KALERIK-KALE 1 €	-	1	1	-	-	-	-	2
ESKUKO HIZTEGIA (etorkinena) - doan	-	-	-	-	-	-	-	-
Etxebizitzaren erabilera eta mantentze estilo-liburua - doan	-	-	-	-	-	-	-	-
TRAMITEEN ESKULIBURUA - doan	-	-	-	-	-	-	-	-
EUSKALDUNAK MADRILEN (J. Basterretxea "Oskillaso") - 3 €	-	-	-	-	-	-	-	-
KURLOIAK eleberria (Jose Basterretxea "Oskillaso") - 3 €	-	1	-	1	-	-	-	2
URDAIBAI ARTEAN - Paisaiaren alkimia - 2 €	-	-	-	-	1	-	1	2
URDAIBAI ARTEAN - Literatura gida - 2 €	-	-	-	-	-	-	-	-
ERRETERIA auzoko historia - 3 €	-	-	1	2	1	-	-	4
Gernika-Lumo 1876-1937 (sarrera historikoa) - 7 €	-	1	-	1	-	-	-	2
DVD-a GERNIKA (Bonbardaketa) - 2 €	-	1	-	-	2	3	4	8
Unitate didaktikoak 1 -1€	-	-	1	-	7	-	-	8
Unitate didaktikoak 2 -1€	-	-	1	1	2	-	1	5
Unitate didaktikoak 3 -1€	2	-	1	-	2	-	1	6
Unitate didaktikoak 4 -1€	2	-	1	-	3	-	1	7
Ama aita eskolako lanak neuk... - doan	-	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	11	4	17	13	19	5	663	732